

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

## 4741

*EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 16koa, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko 1/2016 Legea ez betetzeagatik jartzen diren zehapenak ordezteko sistema arautuko duen dekretu-proiektua.*

Osasuneko sailburuaren 2021eko uztailaren 23ko Aginduaren bidez, aldez aurretik onartu da adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko 1/2016 Legea ez betetzeagatik jartzen diren zehapenak ordezteko sistema arautuko duen dekretu-proiektua.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoek eragiten dieten xedapenei entzunaldiaren izapidea egingo zaie. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen duenean, jendaurrean jarriko dira.

Ildo horretan, proiektua egiteko prozedura hasteko aginduaren arabera, informazio publikoko izapide bat ireki behar zen, izapidetzen ari zen arauan interesa zuten gizarte-eragileen ahalik eta parte-hartze handiena bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen marxoaren 23ko 116/2021 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritz, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko 1/2016 Legea ez betetzeagatik jartzen diren zehapenak ordezteko sistema arautuko duen dekretu-proiektua, hogeit egunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkezteko, dekretu-proiektuaren testua eskuragarri egongo da Legegunearen egoitzan –Euskal araudiaren atarian–.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 16a.

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria,  
IÑAKI ARRIZABALAGA ORMAETXEA.